

BERANGO

gaur

71. ZBKIA 2019EKO URTARRILA

BERANGO GAUR HILABETEKARIA
BERANGO GAUR MENSUAL

www.berango.net



Berango
21
Guztion konpromisoa
Un compromiso común

berangokoudala@berango.org



BERANGOK 7.6 MILIOI EURO BAINO GEHIAGOKO AURREKONTUARI ONERITSIA EMATEN DIO

KONTUEK AUZOTARREK PROZESU PARTEHARTZAILEAN AURKEZTUTAKO IRADOKIZUNAK ISLATZEN DITUZTE

BERANGOKO Udalak 2019ko aurrekontuak onartu ditu, 7.648.829 eurokoak izango direnak. Gobernu Taldeak – EAJ/PNVk eta PSE-EEk osatutakoa- eta Alderdi Popularrak kontuak babestu zituzten, eta EH Bilduk, DB-TUK eta adskribatu gabeko zinegotzia den Oscar Garciak kontra bozkatu zuten.

Urte honetarako aurreikusitako inbertsioek 713.000 euroko aurrekontua dute. Hauetako 120.000 euro Santa Anan dauden udal jabegoaren lonjetarako hornikuntza berria erostera zuzenduko dira, batez ere gazteek erabiliko dutelarik. Esparru horretako parte bat ikasketa gela izango da. “Mota honetako areto gutxi dago, aurreikusten genuen bezala, eta Aurrekontuen Prozesu Partehartzaileak gabezia hau berretsi du”, azaltzen du alkatea den Anabel Landak.

Bestalde, Santa Anako lonjetan autoenple-

guaren sustapenerako esparrua sortuko da ere. Ekimena Gazteria Sailarekin eta Gazte Mahaiarekin lotuta dago. Sail horretan burututako aktibitateak populazioaren sektore honen aisialdiaren kudeaketara zuzenduta egon dira beti. “Orain aldi aberasgarri berria jaio da, Garapenaren eta Enpleguaren Lankidetzaren duena, aisialdia alde batera utzi gabe”, azpimarratzen du Landak.

Aurten inbertituko den zenbatekoaren parte handi bat pasadan urteko amaieran martxan jarritako Aurrekontuen Prozesu Partehartzailearen bidez ezagututako auzokoen eskaerak gauzatzera zuzenduko dira. Helburu horretara 273.000 euro zuzenduko dira. Berangoko auzokoei eskatutako gauzen artean, oinezkoentzako pasabideen eta asfaltoaren hobekuntza, Berangoetako Kultur Etxearen eta futbol zelaiaren harmailen konponketa eta Kirolgunean saski berriak jartzea nabarmentzen dira.

Aurtengo aurrekontua 2018ko aurrekontua baino 280.000 euro gutxiagokoa da. Pasadan urtean kreditu bat amortizatu zen eta horrek azken zenbatekoa handitu egin zuen.

Argitu beharra dago udalbatzak onartutako aurrekontuek aurkezten dituzten inbertsioak ez direla Gobernu Taldeak-EAJ/PNVk eta PSE-EEk osatutakoa-burutzea aurreikusten dituen guztiak. Lehenengo eta behin, beharrezkoa da Aurrekontuetako itxiera egitea, otsailaren amaieran egingo dena. Orduan diruzaintzan dagoen soberakina eta inbertsio gehigarri posibleak ezagutuko dira. “Soberakina erabili ahal izateko aldaketan Basotxuko umeentzako jolas esparrua estaltzea islatzen da”, azaltzen du alkatea adibide moduan.

Azkenik, 2019an langileen gastuak gehituko dira pasadan urtearekin konparatuz, egun Arkauteko akademian beraien formakuntza osatzen ari diren bi udaltzain gehiago egingo baitira.

AUZOKOEN 232 PROPOSAMEN

2019ko Aurrekontu Partehartzaileen Prozesuan, orain arte egin den hirugarrena, Berangoko herritarrek 232 proposamen aurkeztu zituzten. Hauetatik, 180 iradokizun Hirigintza, Ingurumen eta Lan eta Zerbitzuen Sailekin erlazionatuta egon ziren. Kulturarekin lotutako 39 eta Hezkuntzarekin erlazionatutako 6 iradokizun aurkeztu ziren.

Teknikoek aurkeztutako proposamenak – gehienbat espaloietan, galtzadan edo kaleen zoruaren hobekuntzak egitea- aztertu zituzten, beraien bideragarritasuna

ezagutzeko, eta behin betiko txosten bat osatu dute jada. Planteatutako proposamen gehienak leku jakin batzuetan argiztapena gehitzeko eskaerak eta loregintzarekin, irisgarritasunarekin eta seinalez-tapenarekin erlazionatutako eskaerak izan ziren.

Aurrekontu Partehartzaileen Prozesuaren ondorioak kontuak ematean jakinaraziko dira. Burututako ekintza guztiak eta herritarrek aurkeztutako iradokizunen artean Berangoko Udalak aurrera eramango dituen ekimenak azalduko dira.



"BABO ROYAL" ANTZERKI KOMIKOAK IKUSLE FAMILIARRAK DIBERTITZEAGATIK APOSTUA EGITEN DU

BERANGO ANTZOKIAK ADIN GUZTIETARAKO PELIKULAK ESKAINTZEN DITU

“Babo Royal” antzelean nagusia da eta Berango Antzokian ikusi ahal izango da otsailaren 23an. Antzerki komiko mutua da eta adin guztietako publiko inperio dibertigarri horretan parte hartzera gonbidatuko dute, ikusentzule guztiak alaituz. “Babo Royal” arratsaldeko zazpietatik aurrera eskainiko da, Ganso & Cía pailazo konpainiaren eskutik.

Hileko ikuskizunen sailak pelikulak ere eskaintzen ditu. Haurrentzako luzemetraiak

nabarmetzen dira, otsailaren 17an “Jon Braun” pelikularekin, eta 24an emango den Maya erlearen abenturen bigarren filmarekin, bertan protagonista famatu honek Eztiaren Jolasetan parte hartzen duelarik. Pelikula biak euskaraz eskainiko dira, arratsaldeko seietatik aurrera.

12 urte baino gehiagoko gazteei zuzendutako “El hilo invisible” luzemetraiak programazioa betetzen du, ospe handiko jostun batek bizitzen duen amodio istorioa kontatzen duena.



Estatuko Miliarik onena laugarren aldiz

Berriro ere eta lau aldiz jarraian, Berangoko Nazioarteko Milia Estatuko onena izan da, Espainiako Erreal Federazioaren arabera. 919 puntuekin Bilboko bano lehen kokatu egin da, azken honek 663 puntu lortu dituelarik. Hirugarren postua Burgoseko Aranda de Duero Hiri Miliarako izan da, 583 puntuekin.

“2019ko urriaren 19an lehia-keta honen 32. edizioa antolatuko da, aurreko beste edizioetan baino pixkat beranduago, Dohan (Qatar) burutuko den kanpoko munduko txapelketarekin bat ez egiteko”, azaldu zuen lasterketaren zuzendaria den Josu Hernandezek.



Otxandategiren ikuskizun berria

Otxandategi Taldeak ikuskizun berezia aurkeztuko du otsailaren 16an, 20:00etan, larunbata, Santo Domingoko elizan. Ezin duzu galdu bere erreperitorioaren gai berriak aurkeztuko dituen emanaldi hau. Iaz herriko taldeak Berangon euskal dantzen etnik gabeko 75 urte bete zituela gogoratu beharra dago. Argitalpenean, zuzendaria den Iñaki Gonzalezen eskutik, denbora honen guztiaren historia kontatzen da, eta bildutako informazioari esker denboraldi horretan elkarrean parte hartu duten 700 pertsona baino gehiagoren izen-abizenak eta irudiak agertzen dira. Liburua Eroski hipermerkatuan eskura daiteke, 20 euroren truke.

Agenda Berango Antzokia

Febrero 2019ko Otsaila

• Otsailak 10 // 18.00etan
“FERDINAND”
ZINEA 6 urtetik gorakoentzat.
Gaztelaniaz. Doan.
Bihotz izugarri oneko zezen
baten istorioa da.

• Otsailak 16 // 19.00etan
“EL HILO INVISIBLE”

ZINEA 12 urtetik gorakoent-
zatzat. Gaztelaniaz. Doan.
Jostun ospetsu baten maita-
sun istorioari buruzko filma.

• Otsailak 17 // 18.00etan
“JON BRAUN”
TXOTXONGILO emanaldia
umeentzat. Euskaraz. Sarrera:

4 €. Abenturaz, umorez eta
zirrarez beteriko ikuskizuna.

• Otsailak 23 // 19.00etan
“BABO ROYAL”
ANTZERKI komikoa adin guz-
tiantzat. Mutua. Sarrera: 4 €. Inperio txiki honetan denok
gaude gonbidatuta parte

hartzera.

• Otsailak 24 // 18.00etan
“MAYA ERLEA 2. EZTI-
JOKOAK”
Animazio ZINEA umeentzat.
Euskaraz. Doan. Maya erleak
Ezti Jokoetan parte hartu
beharko du.



Para recibir la agenda
por e-mail:
euskara@berango.org



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Gehigarri honek
Bizkaiko Foru
Aldundiaren
laguntza jaso du

Berango
Guztiaz konpromisoa
Un compromiso común
21



Igogailu berria Sabino Aranan

Ekipo elektrogeno bat martxan jarriko da elektrizitate-hornidurak huts egiten badu

METRO zonaldean, batez ere Sabino Arangatik Intxaurragara pasatzeko eta

alderantziz, dagoen irisgarritasun arazoa konpontzeko, Berangoko Udalak 2018ko urriaren 29ko datarekin atal horretan

lanak egitea esleitu zuen. Momentuz, arrapala bat alokatuko eta kokatuko da arazo hau probisionalki konpontzeko, zonalde horretarako behin betiko konponbide bat aztertzen den bitartean.

Arrapala kokatzeko orduan, Udalari hasieran planteatutako

baldintzetan jartzeko dauden arazo teknikoen berri eman zaio. Instalazio honek zonaldean obra zibil garrantzitsua egin behar izatea suposatuko luke. Hau guztia aztertuta, 2018ko azaroaren 27an esleipena baliogabetu zen.

Ahalik eta lasterren erantzuna

eman ahal izateko dauden aukerak aztertu ondoren, abenduaren 28an igogailu berria eraikitzeko proiektua esleitu egin zen. Asmoa ez da dagoena ordezkatzeko, baiziketa herritarrek bi igogailu desberdin erabiltzeko aukera izatea, biak aldi berean zerbitzutatik kanpo egotea oso zaila izango delarik. Honez gain, igogailu berriak ekipo elektrogenoa izango du, elektrizitate-hornidurak huts egitekotan martxan jarriko litzatekeena.



Berangok berreralbipenerako edukiontzi berria du Bidebarri Bidean

Birziklatzeko helburua duten horrelako lau edukiontzi daude

Gaur egun lau dira Berangon ditugun era honetako edukiontziak. Bertan tamaina txikiako objektuak sar daitezke berrerabili ahal izateko, esate baterako, jantziak, oinetakoak, osagarriak, liburuak, jostailuak, gailu elektriko eta elektroniko txikiak eta abar. Beste hirurak Sabino Arana kalean, Simon Otxandategi Etorbidean (monolitoaren altueran, Udalteixaren aurrean) eta Axgane Auzoan, Ricardo Otxoa parkearen ondoan,

daude jarrita.

Objektuen eta gailuen bilketa selektiboak eta beraien berrerabilpenerako eta birziklatzerako prestakuntzak hondakinen murriztea bultzatzen du. Horrez gain aipatzekoa da, proiektu honek, Bizkaiko Foru Aldundiak Kooopera Gizarte Sarearekin lankidetzan daraman proiektua izanik, bazterketa arriskuan dauden pertsonen parte-hartze aktiboa sustatzen duela.

“Aminata” proiektua martxan dago Senegalen hezkuntza zentru bat sortzeko

Berangoko auzotarrek gizaldekoko proiektuan parte hartu dute.

Gandiolen, Senegaleko arrantzaleen herri txiki bat, hezkuntza zentro bat martxan jartzeak oso poztu zuen Nerea Pérez-Arrospe de gaztea. Ildo horretan, zirriborro bat egin zuen, ideia honetan parte hartuko duen gazteriak bultzatutako proiektu bati esker herriaren garpenean laguntzeko asmoarekin. Horrek bere ingurumen naturala errespetatuko lukeen komunitate ahaldundua, konprometitua eta iraunkorra sortzen lagunduko luke.

Asmoa zentru honi forma ematea zen, baina arkitekto gazteak bizitza galdu zuen trafikostre batean 2015ean. Bere ahizpak, Ainhoa, senideek eta lagunek bere lekua hartu zuten plan hura aurrera eramateko. Horregatik babesleak bilatzen eta dirua biltzen hasi ziren.

Nereari “Aminata” esaten zioten Senegalen. Gaur proiektuak izen hori hartu du eta berak zuen ilusioa gauzatzen ari da. Berangoko Udalak, Gazteria Sailaren bidez, prozesu hau guztiz babesten du eta herriko auzotarrek zuzenean parte hartu dute hain bihozbera den amets hau errealitate bihurtzeko. Helburua zentro kultural hau ikasteko erabiltzeaz gain, hezkuntza eta kultura ere bultzatzeko izatea da.

PIZTUTAKO GABONAK

Enhunka pertsonenek gozatu zuten urtarrilera arte luzatu zen gabonetako agenda zabalarekin. Olentzoren eta Errege Maguen bisitek familia ugari erakarri zituen frontoiraino eta duela gutxi berritutako Sabino Arana kaleak gabonetako argiztapen berria erakutsi zuen. Herriko taldeen parte hartzea garrantzitsua izan da urte amaieran eta 2019ko urtearen hasieran.

NAVIDADES ENCENDIDAS

Cientos de personas disfrutaron de la dilatada agenda navideña, que se extendió hasta enero. La visita de Olentzetro y los Reyes Magos volvió a atraer a decenas de familias hasta el frontón municipal, mientras que la remodelada calle Sabino Arana lució con nueva iluminación navideña. Los grupos locales tuvieron una importante participación en el tramo final de año y en el arranque de 2019.



Informazio guztia / toda la información cultural en:
www.berangokultura.org



BERANGOKO INAUTERIAK

Martxoak 2 Marzo

Gaia: MARRAZKI BIZIDUNAK
Tema: DIBUJOS ANIMADOS

18:00 — Berangoeta Kultur etxetik irteera
Salida desde la casa de cultura de Berangoeta

18:30 — TXOKOLATADA

19:00 — DISKO FESTA

Inauterietako desfilean ludotekarekin edo ludoklubarekin parte hartu nahi baduzu, eman izena Ludotekan urtarrilaren 18tik otsailaren 1era. Gurasoak ere gurekin parte hartu nahi izatekotan izena eman beharko duzue 3 euroren truke.

Si quieres participar con la ludoteca o ludoklub en carnavales, apúntate en la ludoteca del 18 de enero al 1 de febrero. Los padres y madres también podrán apuntarse mediante un pago de 3 euros.

Informazio gehiago / Más información:
berangokoludoteka@hotmail.com
ludokluba@gmail.com

FAMILIA BATEN ZAIN JARRAITZEN DUTE

Amatza Auzoa, 5 lurreta 48215 (Goiuriko bidea). Bizkaia.
Zentroko ordutegia: asteleheneetik-ostiralera: 10:00-14:00; 16:00-19:00;
Zapatuak: 10:00-14:00

Ba al dakizu, gaur egun, Berangoko herrian bertan batu diren 5 txakur daudela txakurtegian, adopzioaren zain? Interesaturik egonez gero, ikustera joan zaitezke, **ZAUNK**-era



Izena: **Saiko**
Arraza: **Setter**
Sexua: **Arra**
Adina: **2 urte**
Ezaugarriak:
Lagunkoia eta aktiboa



Izena: **Lolo**
Arraza: **Mestizo**
Sexua: **Arra, zikiratua**
Adina: **2 urte**
Tamaño: **Txikia**
Ezaugarriak: **Lagunkoia**



Izena: **Ron**
Arraza: **Mestizo**
Sexua: **Arra**
Adina: **2,5 urte**
Ezaugarriak:
Lagunkoia eta maitekorra



Izena: **Tak**
Arraza: **Setter**
Sexua: **Arra**
Adina: **3 urte**
Ezaugarriak: **Lagunkoia, baina aktibitatea behar du**



Izena: **Spike**
Arraza: **Spaniel Bretón**
Sexua: **Arra**
Adina: **3 urte**
Ezaugarriak: **Lagunkoia, beste txakur eta pertsonekin**



Nombre: **Saiko**
Raza: **Setter**
Sexo: **Macho**
Edad: **2 años**
Características:
Sociable y activo



Nombre: **Lolo**
Raza: **Mestizo**
Sexo: **Macho, castrado**
Edad: **2 años**
Tamaño: **Pequeño**
Características: **Sociable**



Nombre: **Ron**
Raza: **Mestizo**
Sexo: **Macho**
Edad: **2,5 años**
Características:
Sociable y cariñoso



Nombre: **Tak**
Raza: **Setter**
Sexo: **Macho**
Edad: **3 años**
Características: **Sociable pero necesita actividad**



Nombre: **Spike**
Raza: **Spaniel Bretón**
Sexo: **Macho**
Edad: **3 años**
Características: **Sociable con perros y personas**

SIGUEN ESPERANDO UNA FAMILIA

Barrio de Amatza, 5 lurreta (Carretera Goiuria). Bizkaia
Lunes a viernes: 10.00-14.00; 16.00-19.00 Sábados: 10.00-14.00

¿Sabías que existen 5 perros que se han recogido en el municipio de Berango y que hoy en día están en una perrera a la espera de que sean adoptados?

Si estás interesad@ en adoptar alguno de estos perros, puedes realizar una visita y conocerlos en **ZAUNK**